



## **BULETINA**

### **1. zenbakia**

2021eko azaroa/abendua

Euskaraz ari diren egileak biltzeko asmoz sortua da LANARTEA. Behar gorritik sortu ere, hizkuntza subordinatu bat langai izanik, hizkuntza horren kultur produkzioaren sisteman prekarizatuen, sortzaileak daudelako, autonomoak bereziki (Hego Euskal Herrian, bederen), epigrafe eta legedi saltsa batean igeri.

2019ko maiatzaren 25eko I. Batzar Nazionalan azaldu genuen euskarazko kultur sistemaren langile garelako sortzaileak eta artistak, behingoz langiletzat hartuak izan nahi dugula, gure lan baldintzak duindu beste aukerarik ez dagoela gure kultur jarduna bizigarria izango bada. Azken bi urteetako egoerak ezin argiago erakutsi dio gizarte osoari ez geundela oker, inolaz ere.

Testuinguru horretan, irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtu ginen iaz, LANARTEA Euskararen Langile Profesionalen Elkartearen izenarekin. **Hauek dira bere estatutuetan jasota dauden helburuak**, hitzez hitz:

**\* Euskararen langile profesionalak kulturaren subjektu izanik, ekonomiaren subjektu ere izatea.**

**\* Euskararen langile estatusa lortzea.**

**\* Euskararen langileon eskubideak bermatzea.**

**\* Kotizazio sistema arrazional bat bultzatzea.**

Joan den apirilean, berriz, Amagoia Gurrutxaga Uranga kazetaria hasi zen elkartearen koordinatzaile lanetan.

Eta urriaren 30ean II. Batzar Nazionalera deitu genituen sektoreko langileak.

## **II. BATZAR NAZIONALAREN EKARPENAK**

Urriaren 30ean egin zuen LANARTEAk bere II. Batzar Nazionala, Azpeitiako Sanagustin kulturgunean. Lehen bilkura Donostiako Viktoria Eugenia antzokiko Klub Aretoan egin genuen. Bi batzarron arteko urratsen errepassoa egin genuen Azpeitiko batzarrean. **Hemen, batzarraren kronika:** <https://www.lanarteia.eus/beharrak-batzen-gaitu/>

Behin errepasso hori eginda heldu zen **II. Batzar Nazionalaren ekarpen nagusia**, Sanagustin kulturgunean elkartutako sortzaile eta artistak taldeka eseri, eta elkarrekin gogoeta egin zutenean. Hauek dira talde horietatik atera ziren **gogoetak**:

*\*LANARTEAk sindikatu legez hitz egin behar du, sektoreko langileen hobekuntza ekonomikoa bilatu behar du, aholkularitza eta formazioa eskaini.*

*\*Sektoreko diziplinen arteko artikulazioa ezinbestekoa da, gure egoera espezifikotik abiatuta gizarte segurantzari dagozkion aferak, ogasuna, fiskalitatea, BEZa eta beste landu ahal izateko.*

*\*Praxi onerako gidak eta gutxieneko tarifak lehentasunekoak dira; kontratu eta aurrekontu ereduak ere bai.*

*\*Euskarazko kulturgileentzako epigrafe propioa eta Artistaren Estatusa lortzeak ere lehentasuna du, euskararen kultur munduaren prekarietateari muga jartzen hasi ahal izateko..*

*\*Artistentzako Bizitzeko Gutxieneko Errenta abiarazteko aukerak aztertu behar dira (Frantziako Intermitentziaren eredu gogoan).*

*\*Euskaraz lan egiteak balio gehigarria izan behar du, diskriminazio positiboa.*

*\*Kalitatezko tarteak lortu behar dugu euskarazko sortzaileen lanentzat irrati-telebistetan, kuotak eskatu, EITBtik hasita. EAEko Kultura Sailaren aurrekontuen %51 ente horrentzat da, eta kulturari tarte duina zor dio.*

*\*Erakunde publikoekin bekak, egonaldiak eta bestelako laguntza bideak ere landu behar dira.*

*\*Musikariek urteak daramatzate euskarazko musikarentzako zirkuitu baten beharra aldarrikatzen, eta abian jarri behar da.*

*\*Sektoreko langileen lan baldintza eskasak ezagutarazi behar dira, gizarteak jakin behar du zein egoeratan bizi diren sortzaile eta artistak. Sinesgaitza egingo zaio jende askori, miresten dituen kulturgileen ziurgabetasun maila.*

*\*Pedagogia egin behar da: autonomoen artean, beren eskubideen kontzientzia har dezaten; soldatapekoen artean, autonomoen lan baldintzak kalte ditzaketen proposamenak ez ditzaten onartu; kultur teknikariekin eta programatzaileekin, normaltzat dituzten jardunbideen ondorioak ezagutu ditzaten.*

*\*Gazteak ere gremioko kide sentitzeko bidea egin behar da.*

*\*Kultur sisteman gero eta bitartekari-kudeatzaile gehiago dago, eta horietako gehienak soldatapekoak dira: kultur teknikariak, programatzaileak, argitaletxeak, banatzaileak... Kultur sistemak sortzen dituen irabaziak banatzeko orduan, sortzaile eta artistentzako dirurik ez da aurreikusten ia. Dirua hobeto banatu behar da.*

*\*Erakunde publikoak dira artisten patroia nagusia. Eredugarri behar lukete izan kultur langileekiko harremanetan, diru publikoa mugitzen dutelako zerbitzu publiko bat eskaintzeko, baina enpresa pribatuekin lehian ikusten dute beren jarduna, eta enpresa pribatuen logika berarekin funtzionatzen dute gero eta gehiago, funtzio publikoaren kalterako. Azkenean, eurak ere baliatzen dira sortzaileen eta artisten babesgabetasunaz, ahalik eta diru gutxiago ordaintzeko.*

*\*Udalek artisten esku uzten dute ahal duten guztia, kalte egiten digun kontratu eredu baten bitartez (merkantila). Kontratu eredu hori auzitan jarri behar da.*

*\*EKKI-SGAE, gogoeta egin behar da.*

*\*Militantzia lan baldintza eskasetan aritzeko aitzakia bihurtzen da gehiegitan. Euskara, esaterako, doako saioen aitzakia gisa erabili ohi da oraindik.*

*\*Legeak aldatzera heltzekotan, alderdi politikoekin ere hitz egin beharko du LANARTEAK.*

## **ESKU ARTEAN DITUGUN LANAK**

### **2.1. Elkartearen egituraren egokitzapena.**

Orain artean, Miel A. Elustondo, Dani Fano, Maite Gurrutxaga, Koldo Izagirre, Arkaitz Miner, Antton Olariaga, Joseba Tapia eta Garbine Ubeda aritu dira **LANARTEAren Talde Eragilea**. Talde hori **osatu eta batzorde espezifikoak sortu behar ditugu orain**. Bi hilabeteko epea eman diogu gure buruari horiek lotzeko eta elkarteko kideei aurkeztu ahal izateko. Ari gara horretan.

### **2.2. Diru-iturrien zehaztapena.**

LANARTEAk pertsona bat dauka soldatapean, elkartearen koordinatzaile lanak egin ditzan. Hori du gaur egun gastu iturri nagusia. Ez bakarra, baina. Aholkularitza zerbitzu eta abokatu, batzar eta unean uneko ekimenetarako behar zehatzak, **dirua biltzeko premia daukagu**. Horretarako bideak aztertuko eta proposatuko dizkigun lan talde bat osatzen ari gara. Arlo publiko eta pribatuko eragileekin babes-itunak, mezenasgoa, dirua biltzeko ikuskizun eta emanaldi zehatzak... aukera guztiak ditugu mahai gainean.

**Elkarteko kideen kuota diru iturri bat izango da**, jakina. Dagoeneko hasi gara LANARTEAkide egiteko eskaerak jasotzen. **100 kide lortzea jarri dugu helburu hastapenotan. 60 euroko (gutxieneko) kuota ordaidu beharko dute; 26 urtetik beherakoak edo ikasleak direnek, 30 eurokoa.**

Dedikazio osoz zein aldian behin, autonomo erregimenean egonez ala soldatapekoa izan eta tarteka lanak fakturatuz, profesionaltzat jotzen ditugu kultur arloan sortzen edota interpretatzen duten langileak. Horiek denak izan daitezke LANARTEAko kide.

**Kideak lotzeko beharra, ekonomikoaz harago, estrategikoa da erabat guretzat.** Kide profesionalen kezken, arazoen eta gogoeten ekarpenik gabe, izan ere, ezinezkoa izango zaigu sektorearen egoera behar bezala ikustea eta ikusaraztea, eta, batez ere, egoera hori hobetzeko proposamenak ontzea. Horretarako sortu dugu **KIDEEN TXOKOA** gure webgunean. Kide kontua aktibatu orduko, txoko horretan eskuratu eta erabili ahalko du kide profesionalak elkarreak sortutako materiala, eta baita abian jarriko ditugun gogoetetan parte

hartzeko bidea. Gogoeta horien artean egondo dira, besteak beste: gutxieneko tarifak, artistaren estatutua, euskarazko kultur sorkuntzarako zirkuitua, gazteen panorama, jubilazioa... **KIDEEN TXOKOA** gogoeta horietan parte hartzeko eta lankideekin eta beste diziplinetako sortzaile eta artistekin kontrastatzeko bidea izango dute profesionalek.

### **2.3. Formakuntza eta aholkularitza zerbitzua.**

Azpeitiko batzarrean bildutakoek berretsi egin zuten LANARTEAk lehendik ere detektatua zeukan arazo garrantzitsu bat: sektoreko profesionalen formakuntza eta aholkularitza espezialduaren beharra.

Formakuntzari dagokionez, **2022ko otsail-martxoan 2na orduko 3 saioko ikastaroa eskainiko diegu gure kideei** (guztira, 6 ordu), **DOAN, beren lan erregimenari eta betebeharriskalei dagozkien tramiteak beren kabuz nola egin ikas dezaten.**

Formakuntza horren osagarri, **aholkularitza zerbitzu espezialdu bat eskaintzeko moduak aztertzen ari gara.**

### **2.4. Gazteen egoerari buruzko ikus-entzunezkoa.**

Musika, literatura, zinema, bertsoa, arte eszenikoak, bertsoa edota arte plastikoak lantzen dituzten **zazpi gazte sortzailearen bizipenak bilduko dituen dokumentala ari gara lantzen.** Lehen grabaketak egiten hasiak gara. Udaberrian estreinatzeko moduan izango dugu, dena ondo bidean.

## **ERAGILEEKIN**

### **3.1. Bertsozale, EIE, EIZIE eta Galtzagorri elkarteekin.**

Kultur arloko hainbat eragilerekin jarri gara harremanetan azken hilabeteetan. Harreman horien adibide da **Bertsozale, EIE, EIZIE eta Galtzagorri elkarteekin batera** hasitako bidea. Bide horrek lehen fruitua izan du: **fiskalitate arloko bi neurriko proposamena.** Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako ogasunek onartuz gero, **autonomo zein soldatapeko kulturgileei onura nabarmena ekarriko lieke proposamen horrek.**, eta ez du lege aldaketarik eskatzen, daudenen interpretazioa aldatzea baizik.

### **3.2. UEMArekin.**

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin harremanetan jarri gara, **euskararen arnaguneak euskarazko kulturaren indargune bihurtzeko helburuarekin**. Horretarako, hainbat proposamen jarri ditugu mahai gainean. Gutxieneko zehaztaperen maila batera iritsitakoan, jakinaraziko dizkizuegu.

## **ERAKUNDE PUBLIKOekin**

**Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailarekin bilera egin genuen irailaren 27an.** Bertan aurkeztu genizkien Bertsozale Elkarteak, EIE, EIZIE eta Galtzagorri Elkarteekin ondutako **fiskalitate arloko bi neurriak**. Bertsozale, EIE eta Galtzagorri elkarten ordezkariarekin batera joan ginen bilera horretara. Segidan, neurriok **erregistratu egin genituen, eta azaroan erantzun bat jasoko dugula agindu ziguten. Ez dugu erantzunik jaso oraindik**. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ogasunei ere aurkeztuko dizkiegu orain, eta baita Nafarroako Gobernuari ere.

Alderdi politikoekin bilerak eskatzea etorriko da segidan.

**GUREKIN BATERA ERAGIN NAHI BADUZU:**

**[www.lanartea.eus](http://www.lanartea.eus)**

**[lanartea@lanartea.eus](mailto:lanartea@lanartea.eus)**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**